BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4654

AGINDUA, 2011ko irailaren 1ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbidearen antolaketari dagokion zatiaren aldaketa berriari hasierako onespena ematen diona.

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez, Jaurlaritzaren Kontseiluak behin betiko onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana, eta Plan horrek antolaketarako ezartzen duen eskemaren baitan hiru ardatz bereizten dira: ibilbide luzeko trenbide-sare berria (Europan barnako garraio-sareetako lehentasunezko proiektuetan 3. eta 8.a), aldiriko zerbitzuen sarea (eremu funtzionalak lotzeko korridoreek osatzen dutena), eta metroa edo metro arina, hiri barruko eta eskualdeko loturetarako.

Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2005eko urtarrilaren 25eko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbidearen antolaketari zegokion zatiaren aldaketari hasierako onespena eman zitzaion.

Jendaurreko erakustaldian eta erakundeentzako entzunaldiaren ondoren, planteaturiko metro arinaren alternatiba gisa interes handiko proposamenak egiten zituzten hainbat agiri jaso ziren. Jasotako txosten, iradokizun eta iruzkin guztiak ondo aztertu ondoren, eta kontuan izanik mugikortasun-eskaera handitu egin dela eta epe ertainean Donostialdean are gehiago handitzea aurreikusten dela, ondorioztatu zen trenbide-sarea kalitate aldetik hobetu beharra zegoela.

Hausnarketaren ondorio gisa, beraz, planteaturiko tranbia egin ordez, lehendik zegoen trenbidearen presentzia areagotzea planteatu zen: trenbidearen maiztasuna eta gaitasuna handituz, garraiobide hori jende gehiagok erabiltzeko modua eginez, lurrazalean ahalik eta gutxien okupatuz eta bestelako ondorio txarrak ere minimizatuz. Horretarako, ezinbestekoa da trenbidearen zenbait zati desdoblatzea, trazadura handitzea, lurpeko saihesbideak egitea, geltoki berriak eraikitzea, eta, oro har, zerbitzua hobetzea.

Horregatik, planteaturiko aldaketa hau ere ez da funtsezkotzat jotzen, ez baitu lurralde-eredua ukitzen, ez eta indarrean dagoen lurraldearen arloko planaren berrikusketa orokorrik eragiten, garatu baizik, alternatibak eta baldintza tekniko eta funtzionalak hobeto aztertzearen ondorioz.

Zehaztapen eta jarduketa berriak «Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa» izeneko agirian jaso dira. Agiriaren edukia bat dator otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauetan datorren lurraldearen antolamenduarekin, eta Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak haren aldeko txostena eman zuen 2011ko uztailaren 14an egindako bileran.

Hortaz, irailaren 9ko 206/2003 Dekretuak 5.1, 5.5 eta 5.6 artikuluetan ezartzen duenari jarraituz, bidezko da Planaren aldaketari hasierako onespena ematea, jendaurrera ateratzea eta ukitutako lurralde-administrazio publikoentzat entzunaldia irekitzea, ingurumen-izapidea egitearekin batera.

Horiek horrela, azaldutako oinarriak, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozen legezko xedapenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 13.g eta 15.1.c artikuluetan eta maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 10.e artikuluan ezarritako eskumena, neureganatuta, baliatuz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbidearen antolaketari dagokion zatiaren aldaketan egindako aldaketei hasierako onespena ematea. Aldaketa berriak zabalera metrikoko sareari eragiten dio eta xehetasunak «Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbidearen antolaketari dagokion zatiaren aldaketa» izeneko agirian daude jasota.

Bigarrena.– Agiri hori eta horri buruzko ingurumen-azterlanak bi hilabeteko epean jendaurreko erakustaldian izatea, eta epe berean erakundeei entzunaldia eskaintzea. Epe hori Agindua azkena argitaratzen den egunetik aurrera edo, entzunaldiari dagokionean, kasuan kasuko administrazioak edo erakundeak jasotzen duen egunetik aurrera, hasiko da kontatzen.

Epe horretan dokumentazioa jendeak ikusteko moduan izango da, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean, eta www.euskadi.net web gunean, sailaren atalean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 1a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.